

Daniela Esain Olondriz
Erroibar, Nafarroa (1903)

Aurkibidea

Biografia

Erroibarko Esnotz herrikoa. Gurasoak ere bertakoak zituen.

Zintak

ERB-011

- **Proiektua:** Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artola Kortajarena, Koldo
- **Data:** 1987-01-01
- **Iraupena:** 13 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Artola Kortajarena, Koldo

Pasarteak

1. Zerri-hiltzearen inguruko azalpenak

- **Erref:** ERB-011/001
- **Iraupena:** 0:04:58. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:04:58
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

<p>Zerri-hiltzearen inguruko azalpenak.</p>

Transkripzioa

- Zuk badakizu zerria hiltzeko zer egin behar den?... Zer egin behar da? nola harrapatzen da? nola eramaten eta...?
- Iru edo lau gizonak, juntatzen tzuten? ta, gero?... il, il tzien, il tzii, iltzen tzute, tzzeria.
- Bai, baina, eraman behar zen... nora eramaten zen zerria?
- Ttxerria?
- Non paratu behar zen?
- Emen, etxe guzietan.
- Mahai baten gainean edo?
- Bai, gero... almuerzo.
- Baina, eta nola hiltzen da?
- Nola eitten da?
- Nola hiltzen da? hiltzeko, zer egiten dute?
- Kanabita?... sartu kanabita, ta hala! ta etxeko andrea? bañera batian? balde batian? pues, artu... odola? eta gero, atsaldëan?... dena garbitu bien, ta... gero? pa hacer las morcillas...
- Nola erraten da?
- Tripotak, tripotak; eta gero?... etxetan, ematen die... etxe ba-, batëa? eta gero, aek, iltzen tzutenak, itten zuten? ta, berriz, buelta ona-, onara, patzeuten ordea.
- Ordea, e?
- Ordea, ala zen... 'la costumbre' erdera, sí. Beh! no, no... saco yo ahora nada de eso.
- Eta kanabita nondik sartzen zuten?
- Lepotik!
- Eta zerriak zer egiten zuen orduan?
- Jo! moi-, mobimuentuak, orduen.
- Bai?
- Ah, bai-bai...
- Marruxka?
- Bai, bai.
- 'Marruska' erraten da?... al gritar del cerdo ¿cómo le decian? (Erantzunik ez)
- Leku batzuetan paratzen dute, horrela, atarian...
- Bai.
- Nola paratzen dute?
- Tzilintzan, korda... korda batekin tzilintzan.
- Zertarako?
- Biramonean, gero, iten tzuten puskak... eh!
- Eta hil ondoan pasatzen zaio zerbait gainetik?
- Iten tzuten...

- Garbitzeko, zerbait egiten da?

- Bai, iten tzuten? sua, sua, eta... orduen? belarra edo iratze o... iten tzuten... ta, aekin? sua, sua ematen tziote, bilöak erretzeko; gero, kanibeteki? todo bien limpio, ongi garbituä?... pues hala! ori it(t)en tzuten. Gero, atsaldian, andreak? pues, iten tzuten... tripotak; (...) no, la sangre, como ya se cogía a la mañana, artsaldean iten tzuten tripotak.

- Eta hurrengo egunean, biharamonean, zer egiten zen?

- Orduen txistorrak, klaro...

- Etxerako? edo saltzeko?

- Eeez!... pa las familias, etxeko dena.

- Eta ordea nori ematen zitzaion? apezari?

- Bizpiru etxe... ta etxetan, donde había... parientes; sí, esa costumbre era.

- Apezari ere bai?

- Bai-bai-bai. Pues ahora, eztago fitsik.

- Ongi, oraindik ere oroitzen zara...

- Aah! bai, bai; saber mucho, lo que no sé es seguir.

2. Eultziaren inguruko azalpenak

- **Erref:** ERB-011/002
- **Iraupena:** 0:05:33. **Hasi:** 00:04:58. **Bukatu:** 00:10:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Eultziaren inguruko azalpenak. Larraina nola prestatzen zen. Laborea ebakitzen zenetik ogia egin arteko prozesua.</p>

Transkripzioa

- Hemen egiten zenuten eultzia?

- Bai-bai-bai... larrañetan!

- Oroitzen zara nola?

- Bai-bai.

- Lehendabizi joan behar zen alorrera eta ebaki, ezta?

- Bai-bai-bai.

- Zer ebakitzen zen eta nola, zerekin eta...

- Guadaña, la talla...

- I(gi)taia edo...

- Bai.

- Harekin zer egiten zen? ebaki edo moztu edo...?

- Ebaki.

- Eta gero, ebaki ondoan, zer egiten zen?

- Ekarri larrañera, ta gero ultzëak iten tzire, ultzëak, eta... bi, bi, bi... beak, lotu, bere ikullutzeki ta, oi? ta... orduen, ingurua-ingurua-inguruan? paratu... los trillos, trillos, cuando sierran abajo?

- Bai, nola erraten da trillo? estrazie?

- Estrazie! ¡mejor que yo sabe!... mejor que yo sabe, a mí ya me han olvidao. Eta gero, abre batekin, troteantrotan- trotian? pues, ultzia de-... pikatu dena! atsaldean, t'ite(n)... t'eten e, iten tzuen... agotza, eta mandrekin, e... bialtzen zuten al pajara! ordi.

- Ahoztegira?

- Aoztegia, bai, aoztegia; eta... esto...

- Pikorra?

- Eta pikorra? con... con palas, dena aizaratu, segun nola maten tzuen

aizea? pues, dena... garbitzen tzen, aizëak, eta... maztekiak? bildu agotzak, eta... con una pasadera o una griba? pues, quitar las pajas y dejar el montón bien hecho, bien limpio...

- Bahe, edo galbahe edo, nola erraten zaio? pasadera erraten zuten? eta horrekin zer egiten zen?

- Te, orrekin? pasatu, eta... gero, agotzak pues, gelditzen tziren pasaderetan, eta gero? granua, dena... pues, lurrera, bien... garbittuak, eta gero? zakuetan, dena... arke batëan, ao-, aoztegien? urte guziko?... bai. Gero, ematen tzüten, grano ara... errotara -el molino-, ta... gero? an iten tzuten irina, gero karri etxera, etxera? ta miramon goizëan? ta, iten tzuten? ogiak, eta... ta orduen? labeak -eran los hornos-, pues... t'abarrekin eta egurreki(n)? ongi... ongi beroa, paratzen tzuten ladrilloa guziak, eta gero?... gero atea in tzuten... ogiak, ongi egosiak eta... ¡ya lo creo! ogia goxoak... eta ola.

- Eultzia egiteko lehenik ez zen larraina prestatzen? garbitzen?

- Bai-bai.

- Eta nola garbitzen zen?

- Pues, urte... urte batiän? atrara tzen... tzen belarra, eta... altzurreki(n)? ura dena xi-, xierradatu-xierradatu? pues... kendu, eta gero... gero, beak iten tzuten muñigak? bildu, aiek bildu... bezkoa batera? eta iten tzen una... nasi ura uräki, eta gero etx-, larrain guzietan, ura paratu por... denetan, eta ke... ke-ken, gelditzen tzen larraña pues ongi, bai-bai. Gero maztekiak, maztekiak eskö ateki? dena garbitu, bai.

3. Taloa eta esnea; gaztainak

- **Erref:** ERB-011/003
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:10:31. **Bukatu:** 00:13:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Artoa ere hartzen zen, eta taloak egiten ziren gero. Taloa eta esnea jaten zen. Gaztainak batu eta danbolinean erreta jatea ere ohikoa zen.</p>

Transkripzioa

- Gero... emen? biltzen tzen ta... artöa también, artöa. Gero, ura... ura ere er(r)ematen tzen... errotara, ta gero iten tziren, talöak, ta esniekin, ura... yateko agustoa, gorki ona, ta ola... ala iten tziren, gauzak.

- Bai, bai, ongi kontatu duzu...

- Bai-bai, ala iten tzüte. Gero, emen biltzen tze tambien... gaztañak, ta tanbolean, erreak, erre, eta gero? hala! familia guziak, arratsëan?... a comer castañas. Eta gero? esnia taloaiakin, bei.

- Ona zen?

- Oh! bai-bai, ya lo creo... ya lo creo.

- Etxe guztietan izaten ziren behiak?

- Bai-bai-bai, etxe guzietan, bai. Orduen? ainbertze beak ez, gutti! baña, bueno, etxe guzitan bai; geo beorrak, beorrak ete también, baietz... ardiak, ere bai, auntzak, también... pues ori, ori. Baña! ah!... es una pena, se ha olvidao todo.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com